

**2011KO AZAROAREN 3AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO  
BATZARRALDIAREN AKTA.**

**LEKUA:** Beasaingo Udaletxea.

**ARETOA:** Batzar Aretoa.

**EGUNA:** Hirua.

**HILABETEA:** Azaroa.

**URTEA:** Bi mila eta hamaika.

**HASIERAKO ORDUA:** Arratsaldeko zazpiak.

**BATZARRALDIAREN IZAERA:** Ohikoa

**DEIALDIA:** Lehena.

**OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA:** Hamazazpi (17)

**UDALBURUA:** Koldo Agirre Mujika

**BILDUAK:** M<sup>a</sup> Mar Celaya Gonzalez  
Aitor Larburu Izaguirre  
Asier Sarriegui Zumarraga  
Cecilia Herrador Garin  
Iñaki Saldaña Herrero  
M<sup>a</sup> Luisa Valles Fernandez  
Leire Artola Ugalde  
Iñigo Arrese Artabe  
Encarna Arrieta Telleria  
Eva Diaz del Rio  
Ana María Crespo Blanco  
Josi Insausti Mujika  
Julio Herreros Serna  
Unai Baztarrika Otegi

**ETORRI GABEAK:** Aitor Aldasoro Iturbe  
Fernando Boada Gonzalez

**IDAZKARIA:** Itziar Arostegi Apaolaza

Bileran, Lurdes Alegria Lasa, kontuhartzaleak ere parte hartzen du.

**1.- AURREKO AKTA.** 2011ko urriaren 6ko akta onartzeko proposamena.

2011ko urriaren 6ko aktaren berri eman ondoren, aho batez onartu da.

**2.- TAXIAK.** 2012. urterako AGITAXek proposatutako tarifak onartzea.

Alkate jaunak (BILDU), Hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

*“GAIA.- Taxi-zebitzuaren 2012ko tarifik.*

*(AGITAX) Gipuzkoako Taxisten Elkarteak, Goiekiren bidez, Goierriko erregimen bereziko eremuan aplikatzeko 2012 urterako tarifen onesprena eskatu du.*

*Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio proposamena egiten dio:*

*Lehenik.- Gipuzkoako Taxisten Elkarteak proposatutako kostuen estudioaren onesprena.*

*Bigarren.- Agitaxek Goiekiren bidez proposatu eta ondoren zehazten diren 2012rako tarifen onesprena:*

*- Tarifik 1 eta 2: indarrean egon diren 1 eta 2 tarifen gaineko %2,8ko igoera (abuztuko K.P.I.) aplikatuz sortzen diren ondorengo tarifik onartzea proposatzen da.*

*- Tarifa 5: Tarifa berria, arrisku berezia duten orduetan emandako zerbitzuengatik, hala nola, jai bezpera eta jaietako gaueko orduetan.*

	<b>Abiasaria /Bajada de bandera</b>	<b>Ibilitako kilometroa Kilómetro recorrido</b>	<b>Itxarote ordua Hora de espera</b>
<b>Tarifa 1*</b>	3,2544 €	1,0188 €	19,4602 €
<b>Tarifa 2**</b>	3,2544 €	1,6249 €	30,5851 €
<b>Tarifa 5***</b>	3,3521 €	1,6736 €	31,5027 €

\* Lanegunetan 07:00tik 22:00arte.

\*\* Tarifa hau egunero ezarriko da 22:00tik 07:00 arte. Bai igande eta araudi autonomiko eta lokaleko erabakitako jaiegunetan 07:00tik 22:00 arte bai larubatetan.

\*\*\* Ezartze ordutegia: Ostiraleko 22:00tik larunbateko 07:00ak arte. Larunbateko 22:00tik igandeko 07:00ak arte. Jaieguna edo patroi jaia bezpera 22:00tik, patroi jaia edo jai egunetako 7ak arte. Patroi jaia edo jaieguneko 22:00tik, hurrengo eguneko 7:00ak arte.

Laugarren.- Goiekiri akordio honen berri ematea.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

### **3.- ERAIKUNTA ERAGIKETA ETA INSTALAZIO ZERGAREKIKO HOBARIA.** Arana kaleko etxebizitzak birmoldatzea.

Alkate jaunak (BILDU), Hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“GAIA: Arana kaleko birgaitze planera atxikitako bizilagunek beraien etxe eta lokaletan egindako obrengatik hobariak.

1.- *Udalbatzak 2008ko urtarrilaren 31n egindako bileran Arana kaleko Birgaitze Plana onartu zuen behin-betirako.*

2.- *Gobernu Batzordeak 2008ko martxoaren 18an egindako bileran, J. M. Arana kaleko 1. Areako 1 Unitate Egikaritzeko Birgaitze Plan Berezia gauzatzeko kudeaketa lanak kontratatzea erabaki zuen.*

3.- *Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga erregulatzen duen Udal Ordenantzak, %95era bitarteko hobaria, eraikuntzak, instalazioak eta obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean, etxebizitza babestuak barne,*

*zirkunstantzia sozial, kultural edo historiko-artistikoak izateagatik edo enplegua sustatzeko baliagarriak gertatzeagatik hobaria arautzen du.*

*4.- Udalbatzak 2.010eko urtarrilaren 29an egindako bileran, aho batez onartu zuen Arana Kaleko Birgaitze Plan Bereziaren eremuko jabekeen erkidegoek burutzen dituzten zaharberritze lanak egiteko obrek sortzen duten Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan %95eko hobaria ezartzear.*

*5.- 2011ko maiatzaren 30eko datarekin Birgaitze-bulegoko tekniko arduradunak, Birgaitze Plan Berezira atxikitu diren erkidegoetako jabeek, beraien etxebizitza eta lokaletan egindako obrengatik sortzen den Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren gainean hobaria onartzeko eskaria egin zuen*

*Hau guztia ikusirik, Hazienda Batzordearen iritziz udalaren interes bereziko obrak dira eta horregatik Udalbatzari ondorengo akordioa PROPOSATZEN dio:*

- Jabeek etxebizitzetan egiten dituzten obrengatik sortzen den Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren gainean %95eko hobaria onartzeara, bere erkidegoa Birgaitze Plan Berezira atxikitu egotearen baldintzaapean.
- Jabeek lokaletan egiten dituzten obrengatik sortzen den Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Zergaren gainean %95eko hobaria onartzeara, amankomunak diren birgaitze lanen ondorioz egin beharreko obra zatiaren gainean soilik.
- Proposatutako obrak arrazoizkoak eta apartekoak ez direla egiaztatuz Udaleko teknikariek egindako txostenean oinarrituta Hirigintza Batzordearen aldeko txostena beharko da hobariaren emakida onartzeko.
- Birgaitze Plan Berezia onartu eta indarrean sartu eta gero eskatutako obra lizenzia guztiei aplikatu ahal izango zaie aipatutako hobaria.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

#### **4.- EBAZPENA BAIEZTATZEA,** 4/2011 konkurtsoaren hitzarmen proposamenarekiko atxikimendua.

Alkate jaunak (BILDU), Hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

**“GAIA.- 4/2011 konkurtsoaren hitzarmen proposamenera atxikimendua.**

#### **AURREKARIAK**

*1.- 2.011ko urriaren 10eko datarekin Udal honetan errejistratu da, Calderería Olabe, S.L.ri buruzko, 4/2011 konkurtsoaren hitzarmen proposamenera atxikitzeo eskaria.*

*2.- Hazienda Batzordeko kide guztiak aldeko iritziarekin, enpresaren ordezkariak azaldutako presari erantzunez, Alkateak eba zpena igorri zuen ondorengoa ebatziz:*

- a) *Hitzarmen-proposamenarekiko atxikipena.*
- b) *erabakia berrestea Udalbatzak egiten duen ondorengo bileran.*

*Azaldutakoaren arabera eta kontutan izanik Udalbatzaren eskumenekoak direla kita eta itxarote prozedurei buruzko erabakiak, Hazienda Batzordeak Udalbatzari ondorengo akordio PROPOSAMENA egiten dio:*

*B11/01068 eba zpena berrestea, Calderería Olabe, S.L.ren 4/2011 konkurtsoaren hitzarmen proposamenarekiko atxikimenduaren inguruan.”*

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

**5.- KONTRATOA ALDATZEA.** GOXARA enpresarekin Eguneko Zentroa kudeatzeko, sinatutako kontratuaren aldaketa.

Alkate jaunak BILDU), Hazienda batzordeko ondorengo proposamenaren berri eman du:

“2011ko martxoaren 23ko datarekin, GOXARA S.L enpresak 2011ko ekitaldian aplikatu beharreko eguneraketa %5,8Koa izan dadila eskatzen du, hau da Foru Aldundiak bere eskumenekoa izateagatik, eguneko zentroaren kudeaketarengatik, Udalari ordaintzen dizkion tarifei aplikatuko diena.

GOXARA S.I. enpresaren eskaeraren inguruan egindako Txosten Teknikoa irakurri eta aztertu ondoren, Gizarte Ongizate Batzordeak 2011-10-19an egindako bileran GOXARArekin gaur egun dugun kontratua aldatzea proposatu du, hau da:

- 2011ko prezioei %3a igotzea, kontutan izanik, hitzarmen kolektiboarekiko langileen atxikipen-mailak eragin duela Aldundiak tarifik igotzea.
- Etorkizunean GOXARAreki urtero aplikatu behar den igoera, Aldundiak Udalari egiten dionaren berdina izatea.”

Ezagutzera eman dira baita ere, Foru Aldunditik iritsi den idatzia, Gizarte Politikako Departamentuak Beasaingo Udalari ordaindutakoari buruz eta 2011ko urriaren 11ko teknikoen txostena.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aralar, PP H1 eta EAJko zinegotziek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Ana Crespo andreak (PSE-EE/PSOE): “GOXARA tiene un contrato con el Ayuntamiento y el Ayuntamiento sólo tiene la obligación de incrementar el IPC interanual. Se plantea una modificación de contrato y nosotros ante esto nos vamos a abstener porque pensamos que lo lógico sería que las partes denunciaran el contrato y elaborar un nuevo pliego de condiciones para adecuarlo a las necesidades actuales.”

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 14 (BILDU, EAJ, H1, PP, ARALAR)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, proposamena, gehiengo absolutuarekin onartu da.

## **6.- ORGANISMO AUTONOMOETAKO BATZAR ERREKTOREETAKO KIDEAK.** Euskaltegiko, Musika Eskolako eta Udalaren Kirol Erakundeko Batzar Errektoreetako udal-zinegotzi kideak izendatzea.

Ezagutzera eman da, Euskaltegiko, Musika Eskolako eta Udalaren Kirol Erakundeko estatutuen arabera, Batzorde Errektorearen partaideak, Udalean ordezkatutako talde politiko bakoitzeko zinegotzi bana izango direla, Lehendakari eta Lehendakariordearen alderdietakoak izan ezik.

Horren ondorioz, Alkateak ondorengo zinegotziak izendatzea proposatzen du:

BILDUREn aldetik:

Musika Eskolarako: Cecilia Herrador Garin

EAJren aldetik:

Euskaltegirako: Enkarni ArrietaTelleria.

Musika Eskolarako: Eva Diaz del Rio

Kirolaren Udal Erakunderako: Iñigo Arrese Artabe.

PSE-EE/PSOEren aldetik: Ana María Crespo Blanco, hiru organismo autonomoetarako.

H1ren aldetik: Josi Insausti Mujika, hiru organismo autonomoetarako.

PPren aldetik: Julio Herreros Serna, hiru organismo autonomoetarako.

ARALARen aldetik: Unai Bartzarika Otegi, Euskaltegirako eta Kirolaren Udal Erakunderako.

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

Horren ondorioz, hiru organismoetako Batzorde Errektoreak honela osatuta geratu dira:

### UDAL EUSKALTEGIA

**Lehendakaria**: Aitor Larburu Izagirre (BILDU) (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 4an emandako Ebazpenaren bidez).

**Lehendakariordea**: Euskara-batzordeburua den zinegotzia izango da (estatutuen 8. artikulua), hau da, ARALARko zinegotzia den, Unai Bartzarika Otegi (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 21ean emandako Ebazpenaren bidez).

**Partaideak**: EAJren aldetik, Enkarni Arrieta Telleria, PSE-EE/PSOEren aldetik, Ana M<sup>a</sup> Crespo Blanco, H1ren aldetik, Josi Insausti Mujika, PPren aldetik, Julio Herreros Serna.

### KIROLAREN UDAL ERAKUNDEA

**Lehendakaria**: Asier Sarriegi Zumarraga (BILDU) (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 4an emandako Ebazpenaren bidez).

**Lehendakariordea**: Kirol-arloko arduradun den zinegotzi ordezkaria edota berak izendatutako Kirol-batzordeko edozein partaide (estatutuen 6.b artikulua).

**Partaideak**: EAJren aldetik, Iñigo Arrese Artabe, PSE-EE/PSOEren aldetik, Ana M<sup>a</sup> Crespo Blanco, H1ren aldetik, Josi Insausti Mujika, PPren aldetik, Julio Herreros Serna eta ARALARen aldetik, Unai Bartzarika Otegi.

### MUSIKA ESKOLA

**Lehendakaria**: Unai Bartzarika Otegi (ARALAR) (Alkateak izendatua, 2011ko uztailaren 4an emandako Ebazpenaren bidez).

**Lehendakariordea:** Kultura-arloko arduradun zinegotzia edota bere ordez izendatutako udalbatzako edozein partaide (estatutuen 5.b artikulua).

**Partaideak:** BILDUREn aldetik, Cecilia Herrador Garin, EAJren aldetik, Eva Diaz del Rio, PSE-EE/PSOEren aldetik, Ana M<sup>a</sup> Crespo Blanco, H1ren aldetik, Josi Insausti Mujika, PPren aldetik, Julio Herreros Serna.

**7.- GIZARTE ONGIZATEKO BATZORDEA.** Funtzio berri bat bere gain hartzeko proposamena.

Alkatea jaunak (BILDU), gizarte-ongizateko batzordearen ondorengo proposamenaren berri eman du:

*“Emakumeen kontrako indarkeria eta baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonentzako lan eta formazioa egitarauak, Batzordearen eginkizunen artean sartzea, Gizarte Ongizate arloan egoera horiek atzeman eta beharrekoak diren baliabideak kudeatzen direlako.”*

Bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## **8.- RENUNCIA DEL CARGO DE CONCEJAL**

Ezagutzera eman da, Fernando Boada Gonzalez, PSE-EE/PSOEko jaunak zinegotzi karguaren errenuntzia aurkeztu duela, arrazoi pertsonalak eta lanekoak direla medio. Zinegotzi karguaren errenuntzia, Udalbatza Osoari onartzea dagokio eta onartu ondoren, Hauteskunde-Batzorde Zentralari jakinarazi behar zaio, hurrengo izangaiaren alde kreditziala emateko.

Bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

## **9.- ALKATEAREN EBAZPENAK:**

Ezagutzera eman dira, Alkateak 2011kko irailaren 2tik urriaren 27ra bitarte emandako Ebazpenak.

## **10.- ESKAERA ETA GALDERAK**

Eskaera eta galderen atalean honelakoak aurkeztu dira:

### **ARANGOITI EGOITZAN BIZILAGUNEN ORDEZKARIA**

Malu Vallés andreak (EAJ): “Primero voy a hacer un poco de historia. Después de muchos años de funcionamiento, Arangoiti se convierte en una

fundación y se decide que actúe de determinada manera y que tenga un representante de los vecinos. Este cargo siempre se ha consensuado, se ha hablado con todos los partidos políticos y jamás ha sido un cargo de designación política, ni de Alcaldía ni del equipo de gobierno, sino que se tanteaba a los partidos para saber si la persona o personas eran de la conformidad de todos, por entender que si es un cargo de especial sensibilidad, al tratarse de representar a todos los vecinos de Beasain en una institución tan importante como la residencia de ancianos. Para nuestra sorpresa se han producido dos hechos dolorosos. Uno, se han producido dos Juntas a las que ni tan siquiera se ha citado al representante de los vecinos y por ello creo que no serán ni válidas y el segundo hecho doloroso es que se ha propuesto como representante a una persona, sobre la cual este partido, en principio, no tiene ninguna queja, sin avisar al anterior que se proponía su cese. No se ha consensuado, no se comenta nada y a mí me gustaría y creo que a todo el partido, decirle al equipo de gobierno que está en minoría, en clara minoría, que si desea nombrar a una persona tan importante como es el representante de los vecinos de Beasain en una institución tan sensible como Arangoiti, debería intentar consensuar un nombre con todos los partidos políticos, que estamos para ello, y eso se ve en los plenos, es decir, que cuando los temas se consensúan, se aprueban sin ningún problema, y que desde luego, no estamos de acuerdo con la respuesta que se nos ha dado, a saber: "es un cargo de nuestra entera confianza política". Pues bien, el representante de los vecinos no es un cargo de confianza política, es un cargo, a mi entender y al entender del pueblo de Beasain, que tiene que tener cierta entidad o cierta vinculación con Arangoiti."

Alkate jaunak (BILDU): "Nere gain hartuko dut lehenengo batzarrera ez gonbidatzearen erantzukizuna eta hori horrela gertatu zen ordezkaria aldatzeko asmoa genuelako. Agian moduak ez ziren egokienak izan, baina gu berarekin egon gara eta bakarmena eskatu diogu eta uste dugu berarekin ondo amaitu dugula. Kargua politikoa den ala ez, zuek horrela esaten baduzue, horrela izango da, baina bakoitzak bere pentsatzeko modua du eta nik ez dut uste, ez denik erabat ez politikoa. Gaur Plenora ez ekartzearen arrazoia hori da, hain zuzen ere, kontsentsurik ez egotearena. Hitz egin behar dugun gauza da eta kontsentsuatu."

Malu Vallés andreak (EAJ): "Sería tan fácil como preguntar al resto de los grupos si ha sido consensuado anteriormente y si ha sido político."

#### ARANGOITI EGOITZARA DOAN IGOGAILUA

Malu Vallés andreak (EAJ): "El siguiente tema es el del ascensor que une Arangoiti con el pueblo de Beasain. Lo hemos preguntado en urbanismo, en bienestar social y en el Pleno. El ascensor a día de hoy, 6,30, sigue sin funcionar. He llamado al concejal responsable de bienestar social y me dijo que

el miércoles pasado iba a estar en funcionamiento. Lo siento, pero no funciona. El ascensor tenía que funcionar en agosto. Estamos en noviembre. No sé si no hay acuerdo entre vosotros. En urbanismo nos contestasteis que era una problema de material, en bienestar social nos han dicho que es un tema de cableado. Sin falta iba a estar el miércoles pasado. La gente de Arangoiti no puede bajar al pueblo, porque no tenemos ascensor. ¡Darnos una respuesta!, La que sea, pero que sea verdad. No que va abrirse el miércoles y que no se abra, sino que sea verdad.”

Alkate jaunak (BILDU): “Yo la respuesta que tengo es la que me han dado los técnicos, y es que falta una licencia de Iberdrola.”

Iñaki Saldaña jaunak (BILDU): “En realidad lo que falta es el permiso de mantenimiento del ascensor. Son cosas que no están en nuestras manos.”

Malu Vallés andreak (EAJ): “Yo entiendo que sí son cosas de estar encima todo el día y de estar llamando todas las horas del día, porque vuelvo a insistir, estamos en noviembre.”

Josi Insausti jaunak (H1). “Siguiendo con el tema de Arangoiti, la verdad es que a mi personalmente en la comisión me preocuparon dos cosas: una que se atribuía todo lo que concierne a la sustitución de la representación de los vecinos, al equipo de gobierno y luego nos encontramos con que uno de los partidos que forma el equipo de gobierno, concretamente Aralar, dijo desconocer lo que estaba ocurriendo al respecto. La primera sospecha es si todo lo que se decía allí era verdad o no. En segundo lugar, es algo que preocupa porque se han puesto dos personas a los pies de los caballos, la que se propone su cese, sin su conocimiento previo, y la que se propone su nombramiento, sobre la que no tengo nada en contra, con desconocimiento por parte de todo el mundo de toda la operación respecto a Arangoiti. Menciono el tema de la operación porque por parte del presidente de la comisión de bienestar social, se nos dice que intencionadamente no se convoca a una persona a las dos juntas celebradas en Arangoiti. Habiendo asumido por parte de la Alcaldía el hecho de la no convocatoria a esta persona, mi pregunta es si se van a dar por válidas las dos juntas celebradas en la Residencia Arangoiti, ya que desde el momento en que no son convocados todos los miembros de pleno derecho, se entiende que hay un defecto de forma. La pregunta la pongo encima de la mesa, es decir, ¿se van a dar por válidas las dos juntas celebradas o se van a quedar encima de la mesa?.”

Alkate jaunak (BILDU): “Ez da inolako erabakirik hartu bilera horietan.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Arazoa sortzen da, zalantzan geratzen delako bilera horietan idazkari lanak egiten dituenaren eginkizunak zeintzuk diren. Berak ziurtatu behar du bilera horietan tratatutakoa eta pertsona bat ez deitu

izana. ¿Va a dar fe de algo en la que se le insta a que no se convoque a una persona?. Creo que a efectos formales se presenta un problema, con independencia de las valoraciones que podamos hacer en cuanto al proceder. Hay un técnico de este Ayuntamiento a la que se le pide que ejerza las funciones de Secretaria de esa Junta, y se da la circunstancia de que una de esas reuniones es constitutiva. Por ello pregunto al equipo de gobierno que validez da a esas dos sesiones.

Alkate jaunak (BILDU): “Behar den moduan egingo dugu. Nire aldetik behintzat, ez dago inolako arazorik.”

Josi Insausti jaunak (H1): “¿Quedan en suspenso las dos sesiones?.

Alkate jaunak (BILDU): “Si.”

## ARGITERIA

Josi Insausti jaunak (H1): “En la anterior comisión de servicios no planteé el tema que voy a comentar pensando que iba a solucionarse un problema que ha ido creciendo y que en concreto es, la iluminación de las farolas. Nos consta que ya han sido algunos los vecinos que han manifestado su preocupación porque va aumentando el número de farolas fundidas y las labores de mantenimiento, parece que no están dando como debieran, y además a eso se ha unido que ha habido algunas averías. Quisiera manifestar mi preocupación porque pasan los días y el tema de mantenimiento no mejora. Lo que está fundido sigue fundido y hay otras que siguen fundiéndose. Quisiera saber si hay un plan establecido para ir arreglando. Es un tema preocupante y recurrente.”

M<sup>a</sup> Mar Celaya andreak (BILDU): “Es un tema que yo tengo muy presente. En servicios, desde que hemos entrado, ha sido y es un tema que nos preocupa y lo tenemos encaminado. El Técnico de Servicios nos ha informado que desde 2009, está pidiendo personal para atender ese servicio y se le ha negado rotundamente y en reiteradas ocasiones. Ahora nos encontramos con un problema que no es de hoy, que viene de cuatro años atrás y lo estamos encauzando. En la próxima comisión de servicios del día 14 se van a plantear tres posibilidades, ya que existe un informe de la “Consultoría Lumínica”, del estado actual de las luminarias de Beasain, y ese informe da una serie de ideas para poder solucionar los problemas. No es un tema de hoy. Desde 2009 en servicios están reclamando con insistencia y por necesidad varios planteamientos, entre ellos, el de poner una persona a media jornada y se dijo que no. El problema que tenemos ahora no es un problema de hoy. Es acuciante y ha sido por una dejadez absoluta hasta ahora. Eso que quede claro.”

Josi Insausti jaunak (H1): “En su momento también se planteaban soluciones, pero teniendo en cuenta que es un gasto del capítulo II, se pueden articular mecanismos de urgencia reforzando ese capítulo, para dar salida al problema que se está presentando y esperar a decisiones posteriores, teniendo en cuenta los informes que se presentan. La salida puntual se puede dar, inyectando dinero en el momento. No es con el ánimo de crítica destructiva, pero es un problema que va en aumento.”

M<sup>a</sup> Mar Celaya andreak (BILDU): “En la última comisión de antolakuntza se planteó el tema y se dijo que no porque había que formar a la persona, y esa no era la idea. La solución parcheada que tú me estás comentando tampoco era la idea. La idea es una solución completa y no se soluciona con poner ahora a una persona dos horas. Es un tema sangrante, pero que no es de hoy.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Insisto. Como en este momento lo tenemos, vía capítulo II porque es una empresa contratada, se puede pedir un refuerzo en un momento para dar salida. No es una solución parcheada, ya tomaremos la decisión en el momento que haya que tomar.”

#### ORDENANTZA FISKALAK

Leire Artola andreak (BILDU): “Jakin nahi nuke nola dauden ordenantza fiskalak. Azaroan gaude eta zein da ordenantzekin dauden asmoak?. Plenotik pasatzeko asmoa duzue. Nola gelditzen da gaia?.

Alkatea jaunak (BILDU): “Gure asmoa aurrekontuan ahalik eta ondoena egitea da. Lasai hartu nahi dugun gaia da eta komentatu ez dagoela zertan abendurako onartu beharrik. Urteak izan dira urtarilean, otsailean onartu direnak. Abendurako ateratzea badugu, oso ondo.”

Leire Artola andreak (BILDU): “Ordenanza fiskaletaz ari naiz. Oker ez banago urrirako ez ba ziren onartzen, lehengo urtekoak jarraitzen dute.”

Alkate jaunak (BILDU): “Bai, Ogasun batzordera eraman ziren. Inork ez zuen kontrako proposamenik eraman eta guk esan genuen gure asmoa ez igotzearena izango zela.”

Zabor tasa igotzen al den galdetu du Leire Artola andreak eta Alkateak erantzun dio esanez dena zero geratzen dela.”

#### UDAL ALDIZKARIA

Iñigo Arrese jaunak (EAJ): “Gaur udalaren aldizkarian agertzen dira zinegotzieng ordainsariak, lehengo legealdikoarekin konparatuz. Kontuan izanda

aurreko Plenoan onartu zenutela oraindik bi liberazio geratzen direla, hurrengo aldizkarian datu horiek agertuko diren jakin nahi nuke, zeren eta iruditzen zait orain prezipitatu egin zaretela informazioa ateratzeko unean eta atera duzuena ez dela benetako datua. Galdera da, gero atera behar duzuen benetako datua.”

Alkate jaunak (BILDU): “Bai, noski. Da, gaur egungo benetakoa. Hemendik bi hilabetera bi liberazio badaude, hori izango da.”

Iñigo Arrese jaunak (EAJ): “Giro oso arraroa da, zeren eta orain ateratakoa ez da, hain zuen ere, zuek onartzen duzuena. Agian kasualidadea da, baina kanpaina bihar ateratzen da.”

Alkate jaunak (BILDU): “Lasai, aldatzen diren datuek ere azalduko dira.”

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera gaueko zortziak hamar gutxiagotan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.